



UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN BATZAR NAGUSIA. 2022KO AZAROAREN 3KO EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA.

Honako batzarkide hauek bertaratu dira:

Aizarnazabalgo ordezkariak

Mari Karmen Arregi Agirre.....(% 0,81)

Ander Etxabe Oliden.....(% 0,81)

Azpeitiko ordezkariak

Aitor Bereziartua Larrañaga.....(% 15,33)

Nagore Alkorta Elorza.....(% 15,34)

Amaia Etxeberria Etxeberria.....(% 15,33)

Bidania-Goiatzeko ordezkariak

Miren Agurtzane Zelaia Arandia.....(% 0,53)

Erramun Goikoetxea Amiama.....(% 0,53)

Errezilgo ordezkariak

Xebero Agirretxe Arruti.....(% 0,61)

Ane Ugartemendia Etxeberria.....(% 0,61)

Zestoako ordezkariak

Mikel Arregi Urrutia.....(% 3,87)

Margarita Eizagirre Rodriguez.....(% 3,86)

Idazkari kontu-hartzailea

Olatz Eizagirre Orbegozo

Ingurugiro Etxea Fundazioaren zuzendaria

Orkatz Goenaga Ormazabal

Ez dira etorri honako batzarkide hauek:

Aizarnazabalgo ordezkariak

Maitane Telletxea López.....(% 0,80)

Azkoitiko ordezkariak

Angel Luis Martin Rodriguez.....(% 12,04)

Ana Azkoitia Urteaga (% 12,04)

Iraitz Otaño Mugika.....(% 12,03)

Azpeitiko ordezkariak

Amaia Etxeberria Mutika.....(% 15,33)

Beizamako ordezkariak

Pedro Mari Otaegi Urkizu.....(% 0,16)

Felix Urkizu Galarraga.....(% 0,16)

Manuel Labaka Garmendia.....(% 0,15)

Bidania-Goiatzeko ordezkariak

Aingeru Senperena Iraola.....(% 0,52)

Errezilgo ordezkariak

Luis Maria Arzalluz Amenabar.....(% 0,61)

Zestoako ordezkariak

Garikoitz Mendizabal Etxeberria.....(% 3,86)

2022ko azaroaren 3an, arratsaldeko 18:00tan, Urola Erdiko Mankomunitateko aretoan, Plaza Nagusia, 11-1, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiaren ezohiko osoko bilkura bildu da.

Aizarnazabal, Azpeitia, Bidania Goiatz, Errezil eta Zestoako udalerriek osatzen dute Mankomunitatea, eta bertaratu diren ordezkariak toki-erakundearen % 57,63 ordezkatzeko dute. Mankomunitatearen estatutuen 10.6 artikulua honako hiru betekizun hauek ezartzen ditu Batzar Nagusiaren lehenengo deialdia baliozkoa izateko:

- 1) Batzarkideen erdia gehi bat egotea.
 - 2) Batzarkideen botoen erdia gehi bat ere izatea.
 - 3) Mankomunitatean ordezkariak dituzten udalen erdia gehi bat egotea ere.
- Hiru baldintza horiek lehenengo deialdian bete dira.



Lehendakariak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita % 57,63ko quoruma zegoela egiaztatu ondoren), eta bost udalerriko ordezkariak bertaratu direla adierazi eta gero, Batzar Nagusiko bilkurari hasiera eman dio. Jarraian, batzarkideek deialdiaren gai-zerrendan jasota dauden gaiak jorratu dituzte.

1. 2022ko uztailaren 14ko Batzar Nagusiko ez ohiko osoko bilkuraren akta onartzea.

Inork besterik adierazi ez duenez, botazioa egin ondoren bertaratutakoek aho batez onartu dute 2022ko uztailaren 14ko Batzar Nagusiko ez ohiko osoko bilkuren akta, Urola Erdiko Mankomunitatearen boto haztatuaren 56,57ko portzentajeaz.

2. 1/2017 kudeaketa aginduaren aldaketa onartzea.

Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren 2022ko urriaren 20ko, proposamena, 2017ko maiatzaren 11n egindako bilkuran batzar nagusiak onartutako 01/2017 kudeaketa-gomendioa aldatzekoa.

I. EGITATEZKO OINARRIAK

I.1.- Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak, 2017ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, aho batez onartu zuen 01/2017 Kudeaketa Gomendioa, ordezkartzaren % 94,28ren boto haztatuarekin. Honako klausula hauek zituen:

KLAUSULAK

Lehenengoa. Helburua.

Kudeaketa mandatu honek arau tzen ditu Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAk, Urola Erdiko Mankomunitatearen baliabide propio eta zerbitzu teknikoak den aldetik gauzatu beharreko prestazioak, sozietatearen estatutuen 4. klausulak eta 2004ko abenduaren 3ko lankidetzaren hitzar menak xedatutako baldintzetan.

Urola Erdiko Mankomunitateak honako zerbitzu hauek burutzeko ardura ematen dio Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAri, sozietate publikoaren izenean eta Mankomunitatearen kontura:

Lapatx zabortegiaren zigilatze-lanak egitea.

Zabortegiaren ustiapen aldia behin bukatuta, hau da, zigilatze lanak bukatu ondoren, itxi osteko zaintza eta kontrolaren jarduerak egitea.

Lapatx zabortegiaren eremuko R-1 eremuan kokatutako Garbigunea kudeatzea.



Zabortejiaren eremuko eraikuntza- eta eraispén-hondakinak balorizatzeko planta mugikorra diseinatzea, eraikitzea eta kudeatzea; hondakinok kudeatu baino lehen, hondakin ez arriskutsuak gorde tzeko eremu baten egokitu beharko du.

Hondakinak kudeatzeko zerbitzua ematea.

Zerbitzu eta jarduera guztiak egingo ditu Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAK Ingurumeneko Sailburuordeak emandako 2015eko apirilaren 14ko Ebazpenean, Azpeitiko Udalak emango dituen obra-lizentzian eta 2016ko apirilaren 14ko Alkatetza Dekretu bidez eman duen jarduera-lizentzian agertzen diren baldintzetan, baita haiek legez alda tzen duten beste edozein ebazpenetan eta indarrean dagoen legeriaren arabera ere.

Bereziki, lurzorua ez kutsatzeko prebentzio neurriak eta kutsatutakoa garbitzeko betebeharra bere gain hartzen du sozietateak.

Urola Erdiko Mankomunitateak kudeaketa mandatua egiteko beharrezkoak diren gastu zein kostuei aurre egiteko beharrezkoa den finantza keta lor tzeko egin beharreko kudeaketa guztiak egingo ditu.

Urola Erdiko Mankomunitateak uko egiten dio espresuki sozietatearen aurka edozein egintza burutzeari, baldin eta jarduera horiek Urola Erdiko Mankomunitateak emandako kudeaketa mandatua betetzeko helburuarekin egin baditu.

Itxiera osteko fasean zehar ingurunean edo jardueraren gaineko kontrolean eragin kaltegarriak izan ditzakeen gorabehera edo anomaliarik gerta tzen bada (besteak beste, zaborra ustekabeen botatzea, gehieneko balioak gainditzea edo hondakindegian zigiluz itxeko elementuetako baten funtzionamendu edo segurtasunari edo hondakindegia itxi osteko kontrol-sistemari kalte egin diezaiokeen edozer), entitate ustiatzaileak berehala jakinarazi beharko dio hori Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxe bizitza Sailari, Urola Erdiko Mankomunitateari eta Azpeitiko Udalari.

Bigarrena. Sozietatearen prestazioak aldatzea.

Urola Erdiko Mankomunitateak erabaki tzen badu sozietateak bete beharreko kudeaketa mandatua edo zerbitzu bakoitza emateko baldintzak aldatzea, Mankomunitateak Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAREN Administrazio kontseiluari horren berri eman beharko dio aldaketa horiek gauzatu aurretik.

Sozietatearen Administrazio Kontseiluak 15 eguneko entzunaldi-epean, txosten bat egingo du aurreikusitako aldaketak baloratu eta aldaketa horiek onartzeak ekar litzakeen ondorioak aztertzeko: ondorio juridikoak, ekonomikoak eta kudeaketari begirakoak. Txosten horrek agerian utziko ditu aldaketa horiek izan ditzaketen ondorioak sozietateak hirugarrenetik hartutako kontratu-betekizunetan, bereziki, finantza-entitateekin adostutako betebeharretan; eta aldaketa horien ondorioz, sozietateak ordaindu beharreko kopuruak ebaluatuko dit (kontratuen aldaketak, kalte-ordainak, gain-kostua, finantzaketa gehigarria, amortizazioak, etab.).

Administrazio Kontseiluak txosten hori Mankomunitateari bidaliko dio aipatutako epean, erabakiak hartu behar dituzten organoek txostena kontuan hartzeko aukera izan dezaten, edozein aldaketa onartu aurretik.

Proposatutako aldaketak ondorio ekonomikoak izango balitu (bai sozietatearentzat, baita hirugarrenen eskubide eta interesentzat ere) aldaketa onar tzeko erabakiak jaso beharko du Mankomunitateak bete beharreko konpromiso bat zeinaren bidez sozietatea, aldaketak eragingo dizkion era guztietako kostuei aurre egiteko bitarteko eta baliabidez hornitu behar baita, eta hirugarrenen eskubideak eta interesak ez direla ukituko bermatzeko.

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Plaza nagusia 11-1 a,2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa

Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus



Hirugarrena. Lurralde-eremua.

Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SA zerbitzua emango die Urola Erdiko Mankomunitatea osatzen duten udal guztiei. Aparteko arrazoiak direla-eta, sozietateak beste udal zein udalerriko herritar batzuei zerbitzuak eman ahalko dizkie aurretik administrazioen arteko lankidetzaren hitzarmena formalizatzen badira eta sozietateari dagokion finantzaketaz hornitzen bazaio.

Laugarrena. Epea.

Kudeaketa mandatu honek hogeita hamar urteko indarraldia izango du, Mankomunitateko Batzar Nagusiak kudeaketa mandatu hau onartu eta hurrengo egunetik zenba tzen hasita. Epe hori luzatu ahal izango da zabortegiaren itxi osteko zaintza-aldia amaitu arte.

Bosgarrena. Betekizunak.

Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAK bere gain har tzen ditu honako betekizun hauek, sozietate publikoaren izenean eta Mankomunitatearen kontura:

Kudeaketa mandatu honen barruan dauden zerbitzuak ematea.

Kudeaketa garatzerakoan, zerbitzu hauetan eskumena duten administrazioek onartutako planifikazioan zehaztutako helburuak betetzea.

Zerbitzuak kudeatzerakoan, araudia eta baimenak zorrotasun osoz betetzea, batez ere, ingurumenari buruzkoak. Era berean, Urola Erdiko Mankomunitateak onartu eta gaur egun indarrean dauden ordenantza eta erregelamendu guztiak betetzea, zehazki, honako hauek:

1.1. Urola Erdiko Mankomunitatearen Garbigune eta Birziklapen Etxearen Zerbitzuaren Ordenantza (Garbigune/OHB) (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2015eko uztailaren 17a, 135. zenbakia).

1.2. Urola Erdiko Mankomunitateko Hondakinen Ikuskapenaren Erregelamendua (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2015eko urtarrilaren 15a, 9. zenbakia).

Zerbitzua hartzen dutenek, gai honetan indarrean dauden legezko eta arauzko betekizunak betetzen dituztela bermatzea.

Ingurumen legeriak, ordenantza zein erregelamenduek Mankomunitateari ematen dizkioten ahalmenak erabiltzea, baldin eta horretarako ahalmen publikoak erabili behar ez badira.

Azpiegiturak, Ingurumeneko legeriak, ordenantza eta erregelamenduek xedatutakoaren arabera kudeatzea.

Zerbitzua ematerakoan antzemandako gorabehera guztiak berehala jakinaraztea Mankomunitateari, baldin eta ingurumen legeriaren edo ordenantza zein erregelamenduaren arabera arau-hausteak izan badaitezke.

Mankomunitateko organoei laguntzea, arestian aipatutako arau-hausteetatik etorritako zigor espedienteekin lotutako zeregin teknikoetan.

Sozietatearen helburuarekin zerikusia duten eta agindu zaizkion zeregin guztietan laguntzea Lehendakari edo Lehendakariordeari, Idazkari kontu-hartzaileari, Ingurumen teknikariari edo baliokideari, eta Mankomunitateko beste edozein organoari.



Urola erdiko Mankomunitateari laguntzea, honek arrazoiz abiatutako egintza judizialean edo Mankomunitatearen aurka jarritako prozedura judizialean berorren arrazoizko defentsa egitea, baldin eta auziak kudeaketa mandatu honekin zerikusia badu.

Kontratazio arloan, Mankomunitateari legezkotasuna betetzeari buruzko ikuskaritza-txostena aurkeztea urtero, urteko kontuekin eta finantza-ikuskaritzarekin batera. Eztabaidatzeko, ikusgai jarriko da Urola Erdiko Mankomunitatearen ohiko batzarrean.

Aipatutako ingurumen-arloko legerian, ordenantza zein erregelamenduetan aurreikusitakoa, eta Mankomunitatearen Batzar Nagusiak onartutako aldaketak automatikoki aplikatuko ditu Sozietateak, baldin eta Mankomunitateak arauzko aldaketa horrek eragin diezazkiokeen kostu guztiei aurre egiteko behar adinako bitarteko eta finantza bide gehigarri ematen badizkio. Hirugarrenen eskubideak eta interesak ez dira kaltetuko.

Seigarrena. Zerbitzu publikoari atxikitutako azpiegiturak eta eskubideak.

Urola Erdiko Lapatz zabortegia SAK lehendabiziko klausulan aurreikusitako zerbitzuak emateko erabiltzen edo eraikitzen dituen azpiegiturak Urola Erdiko Mankomunitatearen jabari publikoan sartuko dira, martxan jar tzen diren une beretik eta unean-unean indarrean dagoen legeriak hala ezartzen duen bitartean, baldin eta azpiegitura horiek zerbitzu publikoari loturik badaude, eta kudeaketa-mandatu hau betetzeko eraiki badira.

Era berean, azpiegitura horiek ezinbestekoak badira sozietateak zerbitzua eman ahal izateko, ondasun horiek sozietateak bakar bakarrik erabili ahal izango ditu zerbitzua emateko, laugarren klausulan finkatutako epea bete arte.

Sozietateak ez dio Mankomunitateari inolako kontraprestaziorik emango erabilera lagatzeagatik. Ondasunak erabiltzeko epea bukatzen zaionean, sozietateak Mankomunitateari itzuliko dizkio, une horretan dauden egoera berean.

Bideragarritasun planetan zehazten dira sozietateak erabiliko dituen instalakuntza eta aktiboak. Horietan ere agertuko dira Urola Erdiko Lapatz Zabortegia SAK Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioetik jasotzen duen kanona –Gipuzkoako hondakinen kontsorzioaren, Urola Erdiko Mankomunitatearen, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAREN eta Urola Erdiko Lapatz Zabortegia SAREN arteko 2009ko uztailearen 20ko lankidetzaren hitzarmenaren bitartez itundutakoa, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2015eko abenduaren 28an, 147. Zenbakian argitaratutako– eta Azpeitiko Udalarari ordaindu behar zaion kanona, 2016ko azaroaren 30etik aurrera eta zabortegiaren itxi osteko zaintzaren epealdia bukatu arte, gutxienez, 30 urte.

Zazpigarrena. Ondare erregimenaren publikitatea.

2003ko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 36. 1 artikulua ezarritakoa betez, Mankomunitateak inskribatu beharko ditu bere ondarea osa tzen duten eta inskribatu beharrekoak diren ondasun eta eskubide guztiak, bai jabari publikoak, bai ondarekoak, baita horiei buruzko egintza eta kontratu guztiak ere.

Sozietateari egindako lagapen orori (jada eraikitako instalakuntzenak, edo berrienak) dagokion ondarezko espedienteak izapidetuko da, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Gipuzkoako Gardentasun atarian ere, horren berri emango da.



Zortzigarrena. Inbentarioak.

Sozietateak, beronen esku jarritako jabari publikoko ondasunen zerrenda eguneratua aurkeztuko dio, urtero, Urola Erdiko Mankomunitateari.

Mankomunitateko Idazkari kontu-hartzaileak txosten bat egingo du urtero. Txosten horretan Urola Erdiko Mankomunitateak ondarea kudeatzerakoan indarrean dagoen legeria betetzen duen ala ez ebaluatuko du (lurra, emakidak, instalakuntzak, eskubideak), baita ere hitzarmenetan eta legerian jasotako baldintzak betetzen dituen ala ez.

Bederatzigarrena. Tarifak.

Sozietateak urtero zerbitzua kudeatzearen tarifa proposatu beharko dio Urola Erdiko Mankomunitateari. Tarifa-sistemak GHKren erregelamenduaren 28. artikulua ezarritako printzipioak errespetatuko ditu: tarifa bakarraren edo «herritar guztiontzat zerbitzuen kostu berdina» printzipioa, tarifaren legezkotasunaren printzipioa, proiektuen finantzaketarako erantzukizun printzipioa eta tarifaren diskriminazio positiboaren printzipioa edo zerbitzuaren kostua murrizteko sustapena, tratamendurako aukeraren aurrean berrerabilpenaren edo konposta egitearen aukerak lehenesten badira.

Tarifa proposamena Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiari aurkeztu aurretik, Idazkari kontu-hartzaileak tarifaren askitasunari buruzko eta lehen aipatutako printzipioen betetze-mailari buruzko txostena egingo du. Txosten horiek (inbentariori buruzkoa eta tarifaren askitasunari buruzkoa, alegia) tarifa proposamenari erantsiko zaizkio.

Zerbitzuaren tarifa eta kostua kalkula tzeko eta Sozietatearen Plan Ekonomiko eta Finantzarioaren informazioa aurkezteko orduan, kontuan hartuko dira 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 24.2 eta 25. artikulua (Lapatx zaborteziaren eremuko Garbigunean ematen den zerbitzua hondakinen kudeaketan) eta beharko lukeen kutxa-fluxua; obra handietatik sortzen diren hondakinen kudeaketari dagokionez kontuan hartu beharko da kudeaketa mandatu honen lehenengo xedapen gehigarriak xedatutakoa eta 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa.

Hamargarrena. Oreka ekonomikoa.

Sozietateak ez du banku-finantzaketarik izango, Urola Erdiko Mankomunitateak beren-beregi baimentzen ez badu. Finantza keta eman aurretik, Mankomunitateak onartu beharko ditu sozietatearen eta finantza-entitateen arteko akordio edo konpromiso guztiak.

Sozietateari zerbitzuak emateko baldintzak aldatzen bazaizkio, sozietateak eskubide osoa izango du kostu-aldaketak kudeaketa- tarifen proposatu eta adierazteko.

Hamabigarrena. Kobranta bermatzeko sistemak aplikatzea.

Tarifak kobratzeko Mankomunitateak exekuzioko prozedurak martxan jarriko ditu, erabiltzaileek ordaindu gabeko kredituen kobrantza bermatu ahal izateko.

Hamahirugarrena. Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAren kontratuetan nahitaezko edukia izan behar duten klausulak.

Sozietateak kontratu guztietan honako klausula hauek sartu beharko ditu:



Sozietatearen izaera, Urola Erdiko Mankomunitatearen sozietate mandatari gisa, berorren baliabide propio eta zerbitzu teknikoa den aldetik.

Mandatu bultzatu duen Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiaren erabakiaren aipamen berezia.

Kontratuak estatuko legeria zibila, merkataritzakoari eta prozesuei buruzkoari lotuak eta sektore publikoko kontratuen arauak lotuak dauden aipamen berezia.

Sozietateak hirugarrenekin kontrata tzeko sektore publikoko kontratuen araudiaren mugak errespetatuko ditu eta kontratazioaren beharren txostenean azalduko ditu. Urola Erdiko Lapatz Zabortegia SAK Europar Batasunaren Direktibak zein Kontratazio Jarraibideak beteko ditu, eta indarrean dagoen legeriari uneoro egokituko zaio.

Hamalaugarrena. Sozietatearen Plan Ekonomiko eta Finantzarioa (PEF, hemendik aurrera).

Sozietatearen plan ekonomiko eta finantzarioa da Mankomunitatearen eta sozietatearen arteko kudeaketa mandatu honetatik sortutako harremanak oinarritzko tresna. Hitzarmen honen I. eranskinean dagoen PEF honek aurreikusten ditu:

Aurreikusitako ustiapen sarrerak.

Aurreikusitako ustiapen gastuak.

Diru-funtsa (zabortegiaren itxi osteko zaintzaren zerbitzuan).

*Inbertsioen plana, agindutako lanen kostu eguneratua adieraziz.
Finantzaketa plana.*

Cash-flow eta aurreikusitako altxortegia.

Aurreikusitako emaitzen kontua.

Aurreikusitako balantzea.

Sozietatearen Administrazio Kontseiluak proposatuko du Plan Ekonomiko eta Finantzarioa, betiere Mankomunitateak egindako obra eta zerbitzuen plangintza aintzat harturik, eta Urola Erdiko Mankomunitatearen Lehendakariari bidaliko dio. Lehendakariak adostasuna eman ondoren, Batzar Nagusiari aurkeztuko dio organo horrek onar dezan.

Kontabilitateko beste edozein informazio izan ala ez, PEF eguneratua bidaliko zaio urtero Batzar Nagusiari eta aurrekontuarekin batera aurkeztuko zaio. Era berean, inbertsioen gauzatze maila azaltzen duen memoria ere bidaliko zaio osagarri gisa. Inbertsio bolumena, datuen arabera, egiaztatuko du.

Errentagarritasuna eta inbertsioa berreskura tzeko mailari buruzko informazioa ere emango du.

Hamabosgarrena. Memoria teknikoa.

II. eranskinean dagoen memoria teknikoak deskribatzen ditu zerbitzuak emateko betekizun tekniko zehatzagoak, Urola Erdiko Lapatz Zabortegia SAK bete behar dituenak.

Hamaseigarrena. Obren eta ondasunen harrera.

Urola Erdiko Lapatz Zabortegia SAK mandatari moduan jarduten du Mankomunitateak emandako aginduak betetzerakoan eta mandatu horien harrera Mankomunitatearen kontura egindakotzat hartuko



dira. Hala ere, horrek ez du baldintzatuko sozietateak, bere izen propioan, kontratistei kontratuak behar bezala bete ditzaten eskatu ahal izatea, eta gerta litezkeen ez-betetzeen ondorioak bere gain har ditzan.

Amaierako xedapena. *Obra handietan sortutako hondakinen eta hiri hondakinak ez direnen kudeaketa.*

Obra txikietan sortutako hondakin hauek biltzeko eta tratatzeko eskumena du Urola Erdiko Mankomunitateak, 2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 3.b eta Mankomunitatearen Estatutuen 5. artikulua xedatutakoaren arabera. Hondakin horiek utzi behar dira Garbiguneetan, 2012ko ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak, eraikuntza- eta eraispin- hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituenak eta Urola Erdiko Mankomunitatearen «Garbigune eta Birziklapen etxeen Zerbitzuaren Erregelamendua» izeneko ordenantzan xedatutakoaren arabera.

Obra handietan sortutako hondakinak eta hiri-hondakinak ez direnak kudeatzeko (hau da, hondakin horiek biltzeko eta tratatzeko) eskumena ez du, ordea, Urola Erdiko Mankomunitateak, ezta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAK ere. Kudeaketa hori egiteko, 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 14.4 artikulua eta 2014ko azaroaren 17ko 13/2014 Foru Arauaren 6. artikulua xedatutakoari jarraitu ondoren, honako kudeaketa mandatu hau aldatzea agindu beharko du Urola Erdiko Mankomunitateak, PEFa behin aldatuta.

I.2.- Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAren Administrazio Kontseiluak, 2022ko martxoaren 31n egindako bilkuran, aho batez erabaki zuen Urola Erdiko Mankomunitateari formulatzea 01/2017 kudeaketa-gomendioaren aldaketa, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2017ko maiatzaren 11n onartua, modu honetan:

IV.- ALDAKETA PROPOSAMENA

Aurretik azaldutakoa kontuan hartuta, 1/2017 Kudeaketa Gomendioa aldatzea proposatzen da, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2017ko maiatzaren 11n onartua, Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legearen 32. eta 33. artikuluetan ezarritakoari egokitzeko.

Sozietatearen berezko jardueratzat hartzen dira, eta, beraz, Mankomunitateak egindako enkarguei ez dagozkie honako hauek:

- *Itxi osteko zigilatze, mantentze, zaintza eta kontrol lanak.*
- *Hondakin ez-arriskutsuen eta eraikuntza- eta eraispin-hondakinen kudeaketa instalazioen eremuan.*
- *Lapatxeko instalazioetan eraikuntza- eta eraispin-hondakinak balorizatze eta instalazio mugikorra kudeatzea.*

Urola Erdiko Zerbitzuen Mankomunitateak honako mandatu hauek egin beharko lizkioke Urola Erdiko Lapatx SAri, bitarteko propio pertsonifikatu gisa:

- *Lapatxeko instalazioaren esparruko R1 eremuan dagoen garbigunea kudeatzea.*
- *Azkoitiko Zumarragako Errepidean (z/g) dagoen garbiguneko edo garbiguneko hondakinak kudeatzea.*
- *Lapatxeko instalazioetan dagoen logistika-zentroa kudeatzea.*
- *Mankomunitateak bildutako hondakin ez-arriskutsuen salmenta kudeatzea.*



II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

II.1.- Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAren prestazioen errealitate juridiko-tributarioa kudeaketa-gomendiora egokitzeko beharra

Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2017ko martxoaren 11n egindako bilkuran onartutako kudeaketa-gomendioaren bidez (ekainaren 14ko GAO, 113. zk.), Urola Erdiko Mankomunitateak Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAri honako zerbitzu hauek emateko ardura eman zion, sozietate publikoaren izenean eta Mankomunitatearen kontura:

- *Lapatx zabortegiaren zigilatze-lanak egitea.*
Zabortegiaren ustiapen aldia behin bukatuta, hau da, zigilatze lanak bukatu ondoren, itxi osteko zaintza eta kontrolaren jarduerak egitea.
- *Lapatx zabortegiaren eremuko R-1 eremuan kokatutako Garbigunea kudeatzea.*
- *Zabortegiaren eremuko eraikuntza- eta eraispen-hondakinak balorizatzeko planta mugikorra diseinatzea, eraikitzea eta kudeatzea; hondakinok kudeatu baino lehen, hondakin ez arriskutsuak gorde tzeko eremu baten egokitu beharko du.*
- *Hondakinak kudeatzeko zerbitzua ematea.*

Egindako gomendioa justifikatzeko memorian, sozietateak Mankomunitatearen baliabide propio eta zerbitzu tekniko gisa gauzatu behar dituen prestazioak adierazten ziren, sozietatearen estatutuen laugarren klausulan eta Azpeitiko Udalarekin formalizatutako 2004ko abenduaren 3ko lankidetz hitzarmenean ezarritako baldintzetan. Horri dagokionez, 1/207 gomendioa onartzeko erabakiaren aurrekarietan honako hau jasotzen zen:

2. Urola Erdiko Mankomunitateak erabaki zuen zabortegiaren zerbitzu publikoa merkataritzako sozietate baten bitartez kudeatzea; izan ere, 2004ko abenduaren 3an Azpeitiko Alkate Udalburuak eta Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak lankidetz hitzarmena sinatu zuten, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAren kudeaketaren oinarriak finkatzeko eta sinatzaileek, hitzarmen horretan, honako hau adierazi zuten: «Azpeitiko Lapatx Zabortegiaren kudeaketari behin betiko esparru bat jarri nahi diogu». Lankidetz hitzarmen horren 2. klausula merkataritzako sozietatearen xedea arautzen du eta Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiak 2015eko azaroaren 11n egindako bileran hitzarmen horren 2. klausula aldatzea erabaki zuen merkataritzako sozietatearen estatutuen 4. artikulua xedatutako xede zabalagoi egokitu zekien. Bi artikuluek adierazten dute honako hau: «baltzu horren helburua izango da, alde batetik, Azpeitiko udalerrian eta Azpeitiko udaleko jabetzako lurretan kokaturiko Lapatx zabortegiaren kudeaketa, eta, bestetik, Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitateak agindutako zerbitzuak eta programak burutzea, Urola Erdiko Mankomunitatearekin zein horrek partaidetza dituen erakundeekin lankidetz, Mankomunitatearen xedea lortzeko, dagokion tresnaren bidez, kudeaketa-mandatu zein programa-kontratuaren bidez. Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SA Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatearen baliabide tekniko eta bitartekoa da, sektore publikoko kontratuen legerian eta Europako kontratazio direktibetan ezarritakoarekin ados.»

Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SA Urola Erdiko Mankomunitatearen baliabide propioa da, eta antolakunde hori eratu zen Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85.2.A)d) artikuluan aurreikusitakoaren babesean. Sozietatearen partaide bakarra Urola

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Plaza nagusia 11-1 a,2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa

Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus



Erdiko Mankomunitatea denez, tokiko sozietate publikoa da eta, nahiz eta izaera juridiko pribatuko merkataritzako sozietatea izan, zuzenbide publikoko legeria aplikatu behar du, esate baterako, langileak hautatzeko arauak eta aurrekontuen araubide ekonomikoa zein kontratazio publikoko arauak. Gainera, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SA Mankomunitatearen zerbitzu teknikoa da 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 24.6 artikulua zehaztutakoaren arabera.

Egindako gomendioaren aurrekariek, halaber, honako hau jasotzen zuten:

3. Ingurumeneko Sailburuordeak, 2015eko apirilaren 14ko Ebazpenaren bidez baimentzen dio Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAri, honako jarduera hauek abian jartzeko sustatzaile moduan: hondakin ez-arriskutsuen zabortegia; konpost planta (R 3 eremuan); transferentzia-gunea eta Garbigunea (R1 eremuan); eraikuntza- eta eraipen-hondakinak balorizatzeko planta mugikorra eta hondakin ez-arriskutsuak gordetzeko eremu baten egokitzapena, hondakin horiek kudeatu baino lehen. Azpeitiko Udalak jarduera sailkatuen lizentzia eman dio 2016ko martxoaren 14ko Dekretu bidez jarduera guztiak martxan jartzeko, konpost-plantaren jarduerarena izan ezik.

4. 2016ko azaroaren 30ean Lapatx zabortegia itxi zen, Gipuzkoako lurralde osoko udalerrri guztiei zerbitzua eman ondoren. Data honetatik aurrera entitate ustiatzailea den Urola Erdiko Mankomunitateak eta bere baliabide propioa eta zerbitzu teknikoa den Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAk bere gain hartu dute ardura ustiapen fasea behar bezala bukatzeko, hau da, zabortegia zigoratzeko lanak egiteko, eta zabortegia itxi ondoren, hura mantendu, zaindu eta kontrolatzeko, ingurumen organoak onartutako planaren arabera. Lan horiek eta beste ingurumen zerbitzu batzuk finantza tzeko hogeita zortzi milioi euroko diru funtsa dago Urola Erdiko Lapatx Zabortegiaren SAren titulartasuneko banku-gordailuan.

*5. Urola Erdiko Mankomunitateko zerbitzuek izan dituzten aldatetarako sakonak dira eta 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeek buruzkoak Urola Erdiko Mankomunitateari ematen dion auto-antolaketa-ahalaren bidez aintzat hartzen da zabortegiaren tratamendu zerbitzuaren eraldaketa-prozesuari begira, baita zabortegiaren eremuan beste jarduera batzuk emateko ere, Urola **Erdiko Lapatx Zabortegia SA baliabide eraginkorra eta efizientea dela. Izan ere, sozietate publiko horrek eman baitu nagusiki, zabortegiaren tratamendu zerbitzua orain arte eta ingurumen baimen guztien titularra da.***

Beraz, estatutu sozialen edukiaren arabera, sozietateak ematen dituen jarduerak eta zerbitzuak bi sektoretan banatzen dira: batetik, Lapatxeko instalazioaren kudeaketa, eta, bestetik, Mankomunitateak agindutako zerbitzu eta programak gauzatzea, baliabide tekniko edo bitarteko propio gisa.

Urola Erdiko Mankomunitateak onartutako gomendioan egiaztatzen denez, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAri, Urola Erdiko Mankomunitatearen baliabide propio eta zerbitzu tekniko gisa, enkargatzen dizkion zerbitzu edo prestazio batzuk, berez, sozietatearen beraren jarduerak dira, eta ez dira bere kabuz enkargatuta egin behar, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren eta Sektore Publikoko Kontratuaren Legean aurreikusitakoaren ondorioetarako.

Bereizketa horrek eragina du, besteak beste zerga mailan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Tributuen Departamentuko Zeharkako Zergak, Ingurumeneko Eskualdaketa eta Zergen gaineko Kudeaketa Zerbitzuak 2021eko urriaren 9an eta 2022ko martxoaren 8an emandako ebazpenetan egiaztatuta geratu den bezala. Ebazpen horietan, Sozietateak

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Plaza nagusia 11-1 a,2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa

Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus



aurkeztutako errekurtsioak baietsi ondoren, kuota kengarrien arteko bereizketa ezarri dute, Sozietatearen berezko jardueri dagozkienak, hala nola zabortegia zigilatu, mantendu, kontrolatu eta zaintzeko jarduera, eta kudeaketa-gomendioaren ondorioz egiten diren jarduerak automatikoki sozietateak egindako enpresa-jardueratik kanpo geratzen dira.

Zerga-organoak ezartzen duenez, sozietateak, kudeaketa-gomendioei jarraiki, Urola Erdiko Mankomunitatearen organo tekniko-juridiko gisa emandako zerbitzuak ez dira enpresa-jardueratik bereizitako sektore bat; aitzitik, BEZaren Legearen 78. artikulua arabera BEZaren mende ez daudenez, sozietateak egindako enpresa-jardueratik kanpo geratzen dira automatikoki. Mankomunitateak sozietateari egindako transferentziak eta ekarpenak ez dira merkataritza-harremanen ondoriozko kontraprestazioa, baizik eta izaera publikoko ekarpenak, organo tekniko-juridiko bat finantzatzeko.

Sektore publikoa osatzen duten erakundeek egindako eragiketak atxikitzeari dagokionez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 7.8 artikulua hartu behar da kontuan (azaroaren 27ko 28/2014 Legearen 1.2 artikulua bitartez aldatua izan dena), eta azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 10.1 azken xedapena, zeinak xedatzen baitu ez direla zergapean egongo:

C) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 32. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, enkargua agindu duen botere esleitzailaren bitarteko propio pertsonifikatua duten ente, organismo eta entitateek egindako enkarguen ondorioz emandako zerbitzuak ez dira zergapean egongo, 32. artikulua horretan ezarritako baldintzetan.

Azaroaren 27ko 28/2014 Legeak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatzen duenak, erakunde publikoek egindako eragiketak ez atxikitzeari dagokionez, ezartzen du, alde batetik, kudeaketa-gomendioen bidez emandako zerbitzuak ez atxikitzea, eta, bestetik, ente tekniko-juridiko deiturikoen administrazio-doktrina lege-mailara igotzen da, nahiz eta doktrina horren edukia zabaltzen den, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeari dagokionez, erakunde jakin batzuek administrazio publiko bakar baten partaidetza izatea eskatzen ez delako, eta, betiere, titulartasun erabat publikokoak izatea eskatzen delako.

Baldintza horiek bete ondoren, ez betetzea erakunde publikoak bertan parte hartzen duen edozein administrazio publikoren alde edo guztiz aurrekoen mendekoak diren beste administrazio publiko batzuen alde egindako zerbitzu-prestazioei soilik aplikatuko zaie.

Horregatik, zerga-administrazioak bere ebazpenetan bereizi egiten ditu sozietatearen berezko jarduerak, hala nola zabortegia mantentzea eta zigilatzea, laster hasiko diren beste ingurumen-jarduera batzuk (gasa sortzeko zentroaren proiektua), eta gastu komunak (mendekoak eta lotu gabeak).



Beraz, kudeaketa-gomendioa errealitate juridikora egokitu behar da, eta sozietatearen berezko zerbitzuak bertatik atera, Mankomunitateari ematen dizkion zerbitzuetatik bereizita, bitarteko propio eta zerbitzu tekniko gisa.

II.2. Bitarteko propio pertsonifikatuei egindako enkarguen eta kudeaketa-gomendioen arteko aldea.

Egindako kudeaketa-gomendioa aldatzeko beste arrazoi bat da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea zuzen interpretatu behar dela, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeari dagokionez.

Kudeaketa-gomendioa tresna juridiko bat da, zeinaren bidez administrazio-organoez edo zuzenbide publikoko erakundeek administrazio bereko edo beste bateko zuzenbide publikoko beste organo edo erakunde batzuen esku utz baitezakete jarduera material edo teknikoak egitea, eraginkortasun-arrazoiengatik edo jarduera horiek egiteko baliabide tekniko egokirik ez dutelako. Jarduera horiek Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan daude araututa.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean, 32. artikuluan eta hogeita laugarren xedapen gehigarrian araututako **baliabide propioei egindako enkarguen** bidez, botere esleitzailerek obrak, hornidurak, zerbitzuak, obra-emakidak eta zerbitzu-emakidak egiteko kontratuen berezko prestazioak beste pertsona juridiko bati enkargatu ahal izango dizkiote, zuzenbide publikokoak edo zuzenbide pribatukoak izan, baldin eta pertsona horrek baliabide propio pertsonifikatuaren kalifikazio juridikoa badu.

Kontuan hartu behar da, beraz, SPKLko 11. Artikulua esaten duen moduan, **kudeaketa gomendioak, hitzarmen edo akordio bidez gauzatzen dira**, hau da, bi aldeek arteko negozio juridikoen bidez, bertan parte hartzen duten organoen borondatea biltzen da, baina araututako **baliabide propioek ez dute borondate propiorik eta autonomorik**, eta, beraz, gomendioa eman duen organoak egindako mandatuak **nahitaez** bete beharrekoak dira, alde bakarreko egintza juridikoen izaera duen tresna izanik, eta ez alde biko akordioa.

Gainera, gomendioa administrazioen arteko harreman batean egin behar da, hau da, bi erakundeak zuzenbide publikokoak izatea. Beraz, kasu honetan, Urola Erdiko Lapatz Zabortegea SA ez denez administrazio publikoa, edo haren organo bat, ezin da kudeaketa-gomendiorik egin 40/2015 Legearen 11. artikulua babesean, baizik eta enkarguak egin beharko ditu Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. eta 33. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Zentzu horretan, eta SPKLren 32. Artikuluan ezarritako baldintzen betetzeari dagokionez:



- a) Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SA sozietate publikoa da, Urola Erdiko Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordearen 2005eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez eratua. Sozietatearen kapitala % 100ko, titulartasun publikokoa da.
- b) Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SA Urola Erdiko Mankomunitatearen Administrazio Orokorreko bitarteko propio izatea sozietate horren estatutuetan sartu da.
- c) Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAK baliabide propio pertsonifikatua dela argitaratu beharko du kontratatzailearen profilean, Sektore Publikoko Kontratazio Plataformaren bitartez.
- d) Agindutako jarduerak Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SArekin helburu sozialaren barruan daude, zehazki, 2022ko uztailaren 14an aldatutako estatutuen 4. artikuluan.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAK egiaztatu du 86.2 artikuluan ezarrita dagoen baldintza:

- a) SPKLren 32. artikuluan ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzen ditu, enkargu honen laugarren azalpenean adierazten den bezala.
- b) Bere helburu sozialarekin bat etorriaz enkarguak egiteko baliabide material eta pertsonal egokiak ditu, eta mandatu honen xede diren jarduerak gauzatzeko beharrezko baliabideak ditu.
- c) Urola Erdiko Mankomunitateak eskatzen dituen antzeko lanak egiten duen esperientzia eta antzeko ezaugarriak dituzten zerbitzu-kontratuen kostua kontuan hartuta, enkargua kontratazio publikoa baino aukera eraginkorragoa da, eta iraunkorra eta eraginkorra da errentagarritasun ekonomikoko irizpideak aplikatuta.

III.- ALDAKETA PROPOSAMENA

Azaldutakoaren arabera, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2017ko maiatzaren 11n onartutako 1/2017 kudeaketa-gomendioa aldatzea proposatzen da, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 32. eta 33. artikuluetan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoari egokitzuz. Hori dela eta, Urola Erdiko Mankomunitateak enkargu bat egingo dio Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SARI, eta honako klausula hauek izango ditu mandatu horrek:

KLAUSULAK

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 a,2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus



Lehena. Enkarguaren xedea.

Bitarteko propio pertsonifikatuaren mandatu honetan, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAK Urola Erdiko Mankomunitatearen baliabide propio eta zerbitzu tekniko gisa gauzatu behar dituen prestazioak arautzen dira, sozietatearen estatutuen laugarren klausulan eta 2004ko abenduaren 3ko lankidetzaz-hitzarmenean xedatutako baldintzetan.

Urola Erdiko Mankomunitateak Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAK agintzen dio honako zerbitzu hauek emateko ardura, sozietate publikoaren izenean eta Mankomunitatearen kontura:

- Lapatxeko instalazioaren esparruko R1 eremuan dagoen garbigunea kudeatzea.
- Azkoitiko Zumarragako Errepidean (z/g) dagoen garbiguneko edo garbiguneko hondakinak kudeatzea.
- Lapatxeko instalazioetan dagoen logistika-zentroa kudeatzea.
- Mankomunitateak bildutako hondakin ez-arriskutsuen salmenta kudeatzea.

Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAK zerbitzu eta jardura guztiak gauzatu dituen Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko apirilaren 14ko Ebazpenean ezarritakoaren arabera, Azpeitiko Udalak emango duen obra-lizentzian eta Alkatetzaren 2016ko apirilaren 14ko Dekretuaren bidez emandako jardura-lizentzian jasotzen diren baldintzetan, eta aurrekoak aldatzen dituen edozein ebazpenekin eta indarrean dagoen legediarekin bat etorritik.

Bereziki, elkarteak bere gain hartzen du lurzorua ez kutsatzeko prebentzio-neurriak hartzeko betebeharra eta kutsatutakoa garbitzeko bete beharra.

Urola Erdiko Mankomunitateak beharrezko Kudeaketa guztiak egingo ditu enkargua gauzatzeko behar den finantzaketa lortzeko eta dagozkion gastuei aurre egiteko.

Bigarrena. Sozietatearen prestazioak aldatzea.

Urola Erdiko Mankomunitateak erabaki tzen badu sozietateak bete beharreko kudeaketa mandatua edo zerbitzu bakoitza emateko baldintzak aldatzea, Mankomunitateak Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAK Administrazio Kontseiluari horren berri eman beharko dio aldatzea horiek gauzatu aurretik.

Sozietatearen Administrazio Kontseiluak 15 eguneko entzunaldi-epetan, txosten bat egingo du aurreikusitako aldaketak baloratu eta aldatzea horiek onartzeak ekar litzakeen ondorioak aztertzeko: ondorio juridikoak, ekonomikoak eta kudeaketari begirakoak. Txosten



horrek agerian utziko ditu aldaketa horiek izan ditzaketen ondorioak sozietateak hirugarrenekiko hartutako kontratu-betekizunetan, bereziki, finantza-entitateekin adostutako betebeharretan; eta aldaketa horien ondorioz, sozietateak ordaindu beharreko kopuruak ebaluatuko dit (kontratuen aldaketak, kalte-ordainak, gain-kostua, finantzaketa gehigarria, amortizazioak, etab.).

Administrazio Kontseiluak txosten hori Mankomunitateari bidaliko dio aipatutako epean, erabakiak hartu behar dituzten organoek txostena kontuan hartzeko aukera izan dezaten, edozein aldaketa onartu aurretik.

Proposatutako aldaketak ondorio ekonomikoak izango balitu (bai sozietatearentzat, baita hirugarrenen eskubide eta interesentzat ere) aldaketa onar tzeko erabakiak jaso beharko du Mankomunitateak bete beharreko konpromiso bat zeinaren bidez sozietateak, aldaketak eragingo dizkion era guztietako kostuei aurre egiteko bitarteko eta baliabidez hornitu behar baita, eta hirugarrenen eskubideak eta interesak ez direla ukituko berma tzeko.

Hirugarrena. Epea.

Kudeaketa mandatu honek hogeita hamar urteko indarraldia izango du, Mankomunitateko Batzar Nagusiak kudeaketa mandatu hau onartu eta hurrengo egunetik zenba tzen hasita. Epe hori luzatu ahal izango da zaborteziaren itxi osteko zaintza-aldia amaitu arte.

Laugarrena. Betekizunak.

Urola Erdiko Lapatx Zabortezi SAK bere gain har tzen ditu honako betekizun hauek, sozietate publikoaren izenean eta Mankomunitatearen kontura:

Kudeaketa mandatu honen barruan dauden zerbitzuak ematea.

Kudeaketa garatzerakoan, zerbitzu hauetan eskumena duten administrazioek onartutako planifikazioan zehaztutako helburuak betetzea.

Zerbitzuak kudeatzerakoan, araudia eta baimenak zorrotasun osoz betetzea, batez ere, ingurumenari buruzkoak. Era berean, Urola Erdiko Mankomunitateak onartu eta gaur egun indarrean dauden ordenantza eta erregelamendu guztiak betetzea, zehazki, honako hauek:

1.1. Urola Erdiko Mankomunitatearen Garbigune eta Birziklapen Etxearen Zerbitzuaren Ordenantza (Garbigune/OHB) (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2015eko uztailaren 17a, 135. zenbakia).



1.2. Urola Erdiko Mankomunitateko Hondakinen Ikuskapenaren Erregelamendua (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2015eko urtarrilaren 15a, 9. zenbakia).

Zerbitzua hartzen dutenek, gai honetan indarrean dauden legezko eta arauzko betekizunak betetzen dituztela bermatzea.

Ingurumen legeriak, ordenantza zein erregelamenduek Mankomunitateari ematen dizkioten ahalmenak erabiltzea, baldin eta horretarako ahalmen publikoak erabili behar ez badira.

Azpiegiturak, Ingurumeneko legeriak, ordenantza eta erregelamenduek xedatutakoaren arabera kudeatzea.

Zerbitzua ematerakoan antzemandako gorabehera guztiak berehala jakinaraztea Mankomunitateari, baldin eta ingurumen legeriaren edo ordenantza zein erregelamenduaren arabera arau-hausteak izan badaitezke.

Mankomunitateko organoei laguntzea, arestian aipatutako arau-hausteetatik etorritako zigor espedienteekin lotutako zeregin teknikoetan.

Sozietatearen helburuarekin zerikusia duten eta agindu zaizkion zeregin guztietan laguntzea Lehendakari edo Lehendakariordeari, Idazkari kontu-hartzaileari, Ingurumen teknikariari edo baliokideari, eta Mankomunitateko beste edozein organoari.

Urola erdiko Mankomunitateari laguntzea, honek arrazoiz abiatutako egintza judizialetan edo Mankomunitatearen aurka jarritako prozedura judizialetan berorren arrazoizko defentsa egitea, baldin eta auziak kudeaketa mandatu honekin zerikusia badu.

Kontratazio arloan, Mankomunitateari legezkoatasuna betetzeari buruzko ikuskaritza-txostena aurkeztea urtero, urteko kontuekin eta finantza-ikuskaritzarekin batera. Eztabaidatzeko, ikusgai jarriko da Urola Erdiko Mankomunitatearen ohiko batzarrean.

Aipatutako ingurumen-arloko legerian, ordenantza zein erregelamenduetan aurreikusitakoa, eta Mankomunitatearen Batzar Nagusiak onartutako aldaketak automatikoki aplikatuko ditu Sozietateak, baldin eta Mankomunitateak arauzko aldaketa horrek eragin diezazkiokeen kostu guztiei aurre egiteko behar adinako bitarteko eta finantza bide gehigarri ematen badizkio. Hirugarrenen eskubideak eta interesak ez dira kaltetuko.

Bosgarrena. Zerbitzu publikoari atxikitutako azpiegiturak eta eskubideak.

Urola Erdiko Lapatx zabortegia SAK lehendabiziko klausulan aurreikusitako zerbitzuak emateko erabiltzen edo eraikitzen dituen azpiegiturak Urola Erdiko Mankomunitatearen jabari publikoan sartuko dira, martxan jar tzen diren une beretik eta unean-unean indarrean dagoen legeriak hala ezartzen duen bitartean, baldin eta azpiegitura horiek zerbitzu publikoari loturik badaude, eta kudeaketa-mandatu hau betetzeko eraiki badira.



Era berean, azpiegitura horiek ezinbestekoak badira sozietateak zerbitzua eman ahal izateko, ondasun horiek sozietateak bakar bakarrik erabili ahal izango ditu zerbitzua emateko, laugarren klausulan finkatutako epea bete arte.

Sozietateak ez dio Mankomunitateari inolako kontraprestaziorik emango erabilera lagatzeagatik. Ondasunak erabiltzeko epea bukatzen zaionean, sozietateak Mankomunitateari itzuliko dizkio, une horretan dauden egoera berean.

Bideragarritasun planetan zehazten dira sozietateak erabiliko dituen instalakuntza eta aktiboak. Horietan ere agertuko dira Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAK Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziotik jasotzen duen kanona –Gipuzkoako hondakinen kontsortzioaren, Urola Erdiko Mankomunitatearen, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAREN eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAREN arteko 2009ko uztailaren 20ko lankidetzaz hitzarmenaren bitartez itundutakoa, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2015eko abenduaren 28an, 147. Zenbakian argitaratutako– eta Azpeitiko Udalarari ordaindu behar zaion kanona, 2016ko azaroaren 30etik aurrera eta zabortegiaren itxi osteko zaintzaren epealdia bukatu arte, gutxienez, 30 urte.

Seigarrena. Ondare erregimenaren publizitatea.

2003ko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 36. 1 artikulua ezarritakoa betez, Mankomunitateak inskribatu beharko ditu bere ondarea osa tzen duten eta inskribatu beharrekoak diren ondasun eta eskubide guztiak, bai jabari publikoak, bai ondarekoak, baita horiei buruzko egintza eta kontratu guztiak ere.

Sozietateari egindako lagapen orori (jada eraikitako instalakuntzenak, edo berrienak) dagokion ondarezko espedientea izapidetuko da, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Gipuzkoako Gardentasun atarian ere, horren berri emango da.

Zazpigarrena. Tarifak.

Sozietateak urtero zerbitzua kudeatzearen tarifa proposatu beharko dio Urola Erdiko Mankomunitateari. Tarifa-sistemak GHKren erregelamenduaren 28. artikulua ezarritako printzipioak errespetatuko ditu: tarifa bakarraren edo «herritar guztiontzat zerbitzuen kostu berdina» printzipioa, tarifaren legezketasunaren printzipioa, proiektuen finantzaketarako erantzukizun printzipioa eta tarifaren diskriminazio positiboaren printzipioa edo zerbitzuaren kostua murrizteko sustapena, tratamendurako aukeraren aurrean berrerabilpenaren edo konposta egitearen aukerak lehenesten badira.



Tarifa proposamena Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiari aurkeztu aurretik, Idazkari kontu-hartzaileak tarifaren askitasunari buruzko eta lehen aipatutako printzipioen betetze-mailari buruzko txostena egingo du. Txosten horiek (inbentariori buruzkoa eta tarifaren askitasunari buruzkoa, alegia) tarifa proposamenari erantsiko zaizkio.

Zerbitzuaren tarifa eta kostua kalkula tzeko eta Sozietatearen Plan Ekonomiko eta Finantzarioaren informazioa aurkezteko orduan, kontuan hartuko dira 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 24.2 eta 25. artikulua (Lapatx zabortegiaren eremuko Garbigunean ematen den zerbitzua hondakinen kudeaketan) eta beharko lukeen kutxa-fluxua; obra handietatik sortzen diren hondakinen kudeaketari dagokionez kontuan hartu beharko da kudeaketa mandatu honen lehenengo xedapen gehigarriak xedatutakoa eta 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa.

Bederatzigarrena. Kobrantza bermatzeko sistemak aplikatzea.

Tarifak kobratzeko Mankomunitateak exekuzioko prozedurak martxan jarriko ditu, erabiltzaileek ordaindu gabeko kredituen kobrantza bermatu ahal izateko.

Hamargarrena. Hirugarrenek gauzatutako prestazioak.

Behar izanez gero, eta enkargatutako zerbitzuak behar den denboran eta moduan betetzeko, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAK, gaitasun eta kualifikazio tekniko nahikoarekin, hirugarrenen bitartez gauzatu ahal izango du bere xedea osatzen duten zerbitzuen zati bat, kontratazio publikoari buruzko araudian ezarritakoa kontuan hartuta.

SPKLren 32.7 artikuluan adierazitakoaren arabera, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAK enkargua betetzeko egiten dituen negozio juridikoei arau hauek aplikatuko zaizkie:

- a) Dagokion kontratua SPKLren mende geratuko da, bidezkoak diren baldintzetan, kontratuak egiten dituen erakundearen izaeraren eta horien tasa eta balio zenbatetsiaren arabera.
- b) Bitarteko propioak hirugarrenekin kontrata ditzakeen prestazio partzialen zenbatekoa ez da enkarguaren zenbatekoaren ehuneko 50 baino handiagoa izango. Ez dira prestazio partzialtzat hartuko bitarteko propioak beste enpresa batzuei eskuratzen dizkienak, baldin eta prestazio nagusiaren zati autonomo eta bereizgarria ez diren hornidurak edo zerbitzu osagarriak edo instrumentalak badira, prestazio hori emateko beharrezkoa den prozesuaren parte izan arren.

Azpikontratazioak Urola Erdiko Mankomunitatearen alde zurreko kontsentimendu eta baimena beharko ditu.



Hamaikagarrena. Enkarguaren suntsitzea.

